EuskarAbentura Espedizioa

EUSKARABENTURA 2027

IZEN EMATE OINARRIAK

ZER DA?

EuskarAbentura Espedizioa 2026 (8.edizioa) 127 gaztek osatutako espedizioa izango da, 2026ko

uztailaren 1etik 31ra Euskal Herria oinez eta euskaraz zeharkatuko duena.

PARTE-HARTZEKO BALDINTZAK

- ADINA: 2010 edo 2011 urteetan jaioa/sortua izan Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiko gazteentzako. 2010, 2011 eta 2012 urteetan jaio/sortua izan Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa eta diasporako gazteen kasuan.
- HIZKUNTZA: euskaraz jakitea.
- JATORRIA: zazpi lurralde euskaldunetatik zein diasporatik datozen gazteak.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO:

GALDETEGIA BETE Hautagaitza aurkezteko, www.euskarabentura.eus webgunean, parte-hartu ataleko “Hautagaitzak 2027” orrialdean aurkituko duzuen izen-emate formularioa bete behar duzue. Bertan hautagaiaren eta tutore/gurasoen datuak bete ondoren jarraian azaltzen diren bi dokumentu hauen **esteka** txertatu beharko da formularioaren barruan:

1. AURKEZPEN BIDEO BAT

Gehienez minutu bateko bideo labur bat. Kontaiguzu nor zaren, EuskarAbenturan zergatik parte hartu nahi duzun, espediziotik zer espero duzun, zein ekarpen egingo diozun taldeari... zu pixkatxo bat ezagutzeko aukera izan nahi dugu.

Kontuz! Ez dira Drive-eko estekak onartuko, WETRANSFER bidez sortu beharko duzue zuen bideoa bidaltzeko esteka. (Dokumentu honen amaieran WETRANSFER-eko esteka nola sortu azaltzen duen gida aurkituko duzue).

2. PROIEKTU BAT

Hautagai bakoitzak banakako proiektu edo lan bat egin beharko du. Proiektu hori egiteko sei formatu ezberdin dituzu aukeran, horietako batean proposatzen dizkizugun hiru gaietako bat jorratu beharko duzu.

Kontuz! Proiektu mota batzuetan dokumentu bat baino gehiago bidali beharko da. Ondo begiratu hurrengo orrietako baldintza taulak.

EUSKARABENTURA 2026

PROIEKTUA EGITEKO GAIAK

1. gaia

Euskara eta Euskal Herria 2100. urtean

Gaur egun zuen adineko gazte gehienek dakite euskaraz Euskal Herrian. Azken hamarkadetan aurrerapauso handiak egin dira euskararen ezagutzan, hezkuntzan zein kultura zabaltzen. Hala ere, badakigu jakitea eta erabiltzea ez dela gauza bera, behin eta berriz entzuten baitugu erabilerak gora egin beharrean behera egiten ari dela.

Honen harira, hizkuntzalari batzuek euskararen egoeraren irakurketa negatiboa dute: euskara larrialdian dagoela diote, izan ere, euskararen aurkako jarrerak zein oldarraldiak etengabe ikusten ditugu. Beste batzuek, ordea, euskararen bidegurutzean gaudela diote: gaur hartzen ditugun erabakiek etorkizunean eragin handia izango dute.

Erronkak, ordea, ez dira gutxi: euskaraz dakitenen eta erabiltzen dutenen arteko alde handia, hizkuntza-ohiturak aldatzeko zailtasunak, euskarazko eduki digitalen beharra eta euskarak adimen artifizialean zein teknologia berrietan izango duen lekua. Aldi berean, euskalkien biziraupena, euskararen eta beste hizkuntzen arteko harremana eta Euskal Herriko lurraldeen arteko loturak ere badira etorkizunari begirako gai garrantzitsuak.

Jakin badakigu euskararen eta Euskal Herriaren aldeko lan asko egin dela azken hamarkadetan ez ezik, azken mendean ere. Halere, esaera zaharrak dioen bezala, “asko ez da aski”.

Zein izango da, zure ustez, euskararen eta Euskal Herriaren etorkizuna? Zein izango da euskararen egoera 2100. Urtean? Zer gertatuko da euskalkiekin? Nolakoa izango da Euskal Herria? “Iparralde”/”Hegoalde” kontzeptuak erabiltzen jarraituko dugu? Eta zuk, zer egingo duzu etorkizun hori eraikitzeko?

2. gaia

Familia ereduak

Familia ereduak aldatzen ari dira, eta gero eta ohikoagoak dira ama bakarreko, aita bakarreko, bi amako, bi aitako edo beste mota askotako familiak. Gainera, jende guztiarentzat familia ez da izaten mundura ekartzen gaituen hori soilik, batzuen ustez familia aukeratu egin daiteke, eta lagunak, bizilagunak edo gertuko beste batzuk izan daitezke gure babes sarea edo familia.

Azkenean, familia izan daiteke komunitate sentsazioa ematen digun taldea, elkar zaintzeko eta ondoan daukagun jende hori. Egungo gizarte indibidualistan ezinbestekoa da komunitatearen parte sentitzea, nahiz eta askotan ahaztu egiten zaigun. Komunitate horrek ematen digu talde nortasuna, baina norbere nortasuna eraikitzen ere laguntzen digu, bertatik jasotzen baititugu, besteak beste, hizkuntza, kultura, ohiturak eta balioak, zeinak belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren. Era berean, elkarbizitzak besteekin harremanak eraikitzen, desberdintasunak onartzen eta zubiak sortzen laguntzen digu.

Zoritxarrez, oraindik familia eredu patriarkala hartzen da gehienetan eredutzat, eta beste familia mota batzuk aurreiritzi zein ulermen faltaren atzean geratzen dira. Zergatik kostatzen zaigu eredu patrialkalean oinarritutako familiak ez diren gainontzekoak ulertzea eta onartzea? Familia eredu guztiek aukera bera ematen al dute zoriontsu izateko?

Eta zuretzat, zer da familia? Lagunak izan daitezke familia? Nola eraiki ditzakegu elkarbizitza eta zaintza oinarri dituen gizartea, familia eredu guztiak errespetatuta?

USKARABENTURA 202700

1936

3. gaia

Euskal musika loraldia ari da bizitzen. Euskarazko musika sortzen duten gero eta artista gehiago dauzkagu. Euskaraz abestea, entzutea eta dantzatzea geroz eta ohikoagoa da hainbat espaziotan eta musikak hizkuntzaren erabilera eta transmisioa sustatzeko duen ahalmena agerian geratu da.
Espazioei dagokienean makrokontzertuen eredua hor dago. Errepikatzen ari den mugimendua musika kontsumitzeko esperientzia gisa. Hori da nahi dugun eredua? Zer ekarpen egiten diote euskal kulturari, eta zer-nolako eragina dute inguruko taldeengan? Zorionez, oraindik mantentzen dira hainbat espazio guretik eta guretzat sortuak: Euskal Herria Zuzenean (EHZ) festibala, areto txikiak (Bonberenea Tolosan, Atabal Miarritzen, Totem Iruñean,), herrietako kultur etxeak zein elkarteak... Uztargarriak al dira makrokontzertuak eta eszena txikiak?
Euskal musika loratzen ari bada ere, oholtzak poliki-poliki ari dira aldatzen. Gaur egun ere giro maskulinoa nagusitzen da oholtzetan, baina hasi gara ikusten gorputz berriak. Emakumeak zein genero-disidentziak gero eta gehiago ikusten dira, baita bestelako ahotsak, gorputzak zein musika estiloak ere. Baina nahikoa al da? Nork du musika sortzeko, jotzeko eta erabakitzeko aukera? Zer eragin dute sare sozialek eta plataforma digitalek artista berrien hedapenean?
Honek denak erakusten digu egin daitekeela musika euskaraz, egin daitekeela iraultza euskaraz.
Zuk zer nahiago duzu, kontzertu txiki bat ala makrokontzertua? Kontsumitzen da euskarazko musika zure inguruan? Zein? Bada aldaketarik oholtzetan? Zergatik ari da gertatzen aldaketa? Nor geratzen da oholtzetatik kanpo? Eta, batez ere, nolakoa izatea nahiko zenuke etorkizuneko euskal musika eszena?

Euskal musika eszena

4. gaia

Euskal musika loraldia ari da bizitzen. Euskarazko musika sortzen duten gero eta artista gehiago dauzkagu. Euskaraz abestea, entzutea eta dantzatzea geroz eta ohikoagoa da hainbat espaziotan eta musikak hizkuntzaren erabilera eta transmisioa sustatzeko duen ahalmena agerian geratu da.
Espazioei dagokienean makrokontzertuen eredua hor dago. Errepikatzen ari den mugimendua musika kontsumitzeko esperientzia gisa. Hori da nahi dugun eredua? Zer ekarpen egiten diote euskal kulturari, eta zer-nolako eragina dute inguruko taldeengan? Zorionez, oraindik mantentzen dira hainbat espazio guretik eta guretzat sortuak: Euskal Herria Zuzenean (EHZ) festibala, areto txikiak (Bonberenea Tolosan, Atabal Miarritzen, Totem Iruñean,), herrietako kultur etxeak zein elkarteak... Uztargarriak al dira makrokontzertuak eta eszena txikiak?
Euskal musika loratzen ari bada ere, oholtzak poliki-poliki ari dira aldatzen. Gaur egun ere giro maskulinoa nagusitzen da oholtzetan, baina hasi gara ikusten gorputz berriak. Emakumeak zein genero-disidentziak gero eta gehiago ikusten dira, baita bestelako ahotsak, gorputzak zein musika estiloak ere. Baina nahikoa al da? Nork du musika sortzeko, jotzeko eta erabakitzeko aukera? Zer eragin dute sare sozialek eta plataforma digitalek artista berrien hedapenean?
Honek denak erakusten digu egin daitekeela musika euskaraz, egin daitekeela iraultza euskaraz.
Zuk zer nahiago duzu, kontzertu txiki bat ala makrokontzertua? Kontsumitzen da euskarazko musika zure inguruan? Zein? Bada aldaketarik oholtzetan? Zergatik ari da gertatzen aldaketa? Nor geratzen da oholtzetatik kanpo? Eta, batez ere, nolakoa izatea nahiko zenuke etorkizuneko euskal musika eszena?

PROIEKTUAK EGITEKO GAIAK

INFORMAZIO ITURRI ETA DOKUMENTAZIORAKO IRADOKIZUNAK

EUSKARA ETA EUSKAL HERRIA 2100. URTEAN

- Tribuaren Berbak saioko “Non gaude?” atala: *Euskarak gaur egun bizi duen egoerari buruzko ibilbidea, hainbat lurraldetako ahotsen bidez.* https://labur.eus/TribuarenBerbak_Nongaude
- Kike Amonarrizen “Euskararen bidegurutzean” liburua, nahi izanez gero, dena irakurtzeko, bestela, atalak oso ondo daude banatuta, eta zuzenean intereseko atalera jo dezakezu!

FAMILIA EREDUAK

- Goiena Komunikazio taldearen Datuetatik tiraka Saioa: familia-ereduak https://labur.eus/Goiena_FamiliaEreduak
- Ane Labaka Mayozen “Barraskiloek baino bat gehiago” liburua
- Berriako artikulua: https://labur.eus/Berria_FamiliaHausnarketa

1936

- Katixa Agirreren “Barne Zerbitzuak” librua eta instagrameko bideo hau: https://labur.eus/KatixaAgirre_instagram
- Podcasta: 1936ko emakumeen errepresioaren... eta erresistentziaren historia https://labur.eus/naiz_1936emakumeak
- Eusko Jaurlaritzaren sorrera: https://labur.eus/Berria_EJikasgela

EUSKAL MUSIKA ESZENA

- MUSIKA BERRIA aplikazioa – deskargatu eta kuxkuxeatu! Lana osatzeko informazio erabilgarria topatuko duzu bertan.
- Argiako artikulua: https://labur.eus/Arga_EuskalMusikaEszena
- Berriako artikulua: https://labur.eus/Berria_EuskalMusikaEszena

ADI! KASU!
KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

- EuskarAbentura Elkarteak izen-ematean proiektu guztiak jasotzen ditu, baina elkartea ez da balorazioaz arduratzen.
- Proiektu guztiak Eusko Ikaskuntzako kideek baloratzen dituzte elkarteak emandako irizpideen arabera.
- Proiektuak baloratzaileei bidaltzerakoan anonimotasuna bermatzeko ziurtatu ezazue proiektuen barruan EZ dadila zuen izen-abizenik agertu.
- Elkarteak baloratzaileei bidalketa egiterakoan proiektuetako artxibo guztien izenak kodifikatu egiten ditu.
- Proiektuak bidali aurretik ondo irakurri hurrengo taulan ageri den informazioa eta egin

beharrekoak.

PROIEKTUEN SEI FORMATUAK ETA BIDALI BEHARREKOA

HISTORIKOA: TESTUA



- Luzeera: 3-5 orrialde (azala aparte)
- Hizkuntza: Euskara
- Formatua: PDF
- Letrakera: Times New Roman 12
- Lerroartea: 1,5
- Eranskinik ez

EZ IDATZI EGILEAREN **IZENA** DOKUMENTUAREN BARRUAN

ARTXIBOA IZENDATU HONELA:
Abizen1+Abizen2_Izena
Adibidea: MartínezLópez_Amaiur

LITERARIOA: TESTUA



- Luzeera: 3-5 orrialde (azala aparte)
- Hizkuntza: Euskara
- Formatua: PDF
- Letrakera : Times New Roman 12
- Lerroartea: 1,5
- Eranskinik ez

EZ IDATZI EGILEAREN **IZENA** DOKUMENTUAREN BARRUAN

ARTXIBOA IZENDATU HONELA:
Abizen1+Abizen2_Izena
Adibidea: MartínezLópez_Amaiur

PROIEKTUEN SEI FORMATUAK ETA BIDALI BEHARREKOA

IKUS-ENTZUNEZKO BIDEOA

- Iraupena: 2-5 minutu
- Generoa: dokumentala/fikzioa
- Hizkuntza: Euskara
- Formatua: MP4 edo AVI eta WETRANSFER esteka batean bidali (**ADI**! EZ dira Drive-eko estekak onartuko)

EZ DADILA EGILEAREN **IZENA** AGERTU BIDEOAN

ARTXIBOA IZENDATU HONELA:
Abizen1+Abizen2_Izena_bideoa
Adibidea: MartínezLópez_Amaiur_bideoa

AZALPEN TESTUA

- Luzera: 2-3 orrialde (azala aparte)
- Edukia: ekoizpen prozesuaren azalpena. Erabilitako baliabideak, gaiaren hautaketaren zergatia, izandako zailtasunak...
- Hizkuntza: Euskara
- Formatua: PDF
- Letrakera: Times New Roman 12
- Lerroartea: 1,5

EZ IDATZI EGILEAREN **IZENA** DOKUMENTUAREN BARRUAN

ARTXIBOA IZENDATU HONELA:
Abizen1+Abizen2_Izena_azalpena
Adibidea: MartínezLópez_Amaiur_azalpena

Euskara boot
Jzioqui dugu!

PROIEKTUEN SEI FORMATUAK ETA BIDALI BEHARREKOA

MUSIKALA: AUDIOA



- Iraupena: 2-8 min
- Hizkuntza: Euskara
- Formatua: MP3 edo AVI eta WETRANSFER esteka batean bidali. (**ADI**! EZ dira Drive-eko estekak onartuko)

** Abesti ezagunen bertsioak onartuko dira BAINA konposizio musikal originalak hobeto baloratuko dira.*

ARTXIBOA IZENDATU HONELA:
Abizen1+Abizen2_Izena_audioa
Adibidea:MartínezLópez_Amaiur_audioa

AZALPEN TESTUA

- Luzera: 2-3 orrialde
- Edukia: Obraren azalpena + Partitura/Hitzak
- Hizkuntza: Euskara
- Formatua: PDF
- Letrakera : Times New Roman 12
- Lerroartea : 1,5

EZ IDATZI EGILEAREN **IZENA** DOKUMENTUAREN BARRUAN

ARTXIBOA IZENDATU HONELA:
Abizen1+Abizen2_Izena_azalpena
Adibidea: MartínezLópez_Amaiur_azalpena

PROIEKTUEN SEI FORMATUAK ETA BIDALI BEHARREKOA

PLASTIKOA: ARTELANA

- Gehienezko tamaina: 50x70x20cm. Neurri horietara egokitzen ez diren proiektuak ez dira onartuko.
- Materiala/teknika: Askea (beira eta manipulatzean arriskutsuak izan daitezkeen materialak ez erabili)



EGILEAREN **IZENA EZ** DADILA AGERTU **ARTELANEAN** BERTAN!

GOGORATU! Beranduenez **otsailaren 22rako** artelan originala hurrengo helbidera iritsi behar da eta postaz bidaliz gero beranduenez otsailaren 26rako.

Helbidea: EuskarAbentura Elkartea Errotatxu Industrialdea (GetxoGaso) Z.G. 48993 – Getxo Gasolindegiko dendan utzi

*Aurkeztutako proiektuak ezingo dira berreskuratu.

AZALPEN TESTUA

- Luzera: 2-3 orrialde
- Edukia: Obraren garapenaren eta kontzeptuaren azalpena
- Hizkuntza: Euskara
- Formatua: PDF
- Letrakera : Times New Roman 12
- Lerroartea : 1,5

EGILEAREN **IZENA EZ** DADILA AGERTU **DOKUMENTUAREN** BARRUAN!

ARTXIBOA IZENDATU HONELA:
Abizen1+Abizen2_Izena_azalpena
Adibidea: MartínezLópez_Amaiur_azalpena

ARTELANAREN ARGAZKIA

- Formatua: PDF

EZ IDATZI EGILEAREN **IZENA ARGAZKIAN**

ARTXIBOA IZENDATU HONELA:
Abizen1+Abizen2_Izena_argazkia
Adibidea: MartínezLópez_Amaiur_argazkia

PROIEKTUEN SEI FORMATUAK ETA BIDALI BEHARREKOA

SORMEN DIGITALA: GARATUTAKO PROIEKTUA

- Proiektua ikusteko edota deskargatzeko esteka azalpen testuaren baitan bidali

ADI! EZ dira Drive-eko estekak onartuko

Power Point-ak **ez** dira onartzen!

AZALPEN TESTUA

- Luzera: 2-3 orrialde (azala aparte)
- Edukia: produktuaren ideia, erabilitako teknologiaren azalpena, tresnaren azalpena (pantaila kapturekin) eta zailtasun nagusien ebazpena.
- Hizkuntza: Euskara
- Formatua: PDF
- Letrakera : Times New Roman 12
- Lerroartea 1,5

EZ IDATZI EGILEAREN **IZENA DOKUMENTUAREN** BARRUAN.

ARTXIBOA IZENDATU HONELA:
Abizen1+Abizen2_Izena_azalpena
Adibidea: MartínezLópez_Amaiur_azalpena

GARRANTZITSUA! Baldintza hauek betetzen ez dituzten proiektuak zuzenean baztertuak izango dira, ez dira ebaluaziora bidaliko eta ez dira parte hartzailean hautaketan kontuan hartuko

EGUTEGIA 2026

Otsailaren 22ra arte (barne)	Izen-emate epea: Proiektua eta aurkezpen bideoa bidali
Apirilak 14	Behin-behineko hautatuen zerrenda webgunean argitaratuko da. Hautatuei jakinarazpena bidaliko zaie posta elektroniko bidez.
Apirilak 14-21	Epe honen barruan plaza BAIEZTATU (bermearen ordainketa eginez) edo plazari UKO egiten diozun adierazi beharko duzu. Horretarako: o Plaza BAIEZTATZEKO → Behin-behineko hautatuek esleitutako plaza gordetzeko eskatuko zaien **BERMEAREN ORDAINKETA (250 eurokoa**, **apirilaren 21ean beranduenez)** egin eta ORDAINAGIRIA bidali beharko dute **izenematea@euskarabentura.eus** helbidera. **Ordainketaren KONTZEPTUAN**: Abizena+Izena+2027 (Partehartzailearena) Adib: MartínezAmaiur_2027 o Plaza UKATZEKO → izenematea@euskarabentura.eus helbidera idatzi plazari uko egiten diozula adieraziz. Mezuaren kontzeptuan “Plazari UKO” jarriz. Ondoren eman beharreko pauso ak mezu baten bidez jakinaraziko dizkizuegu. → Dokumentazio bidalketa.

KONTUAN IZAN espedizioan parte hartzeko hautatuak izan diren gazteetatik baten batek bere plaza egingo balio, edota plaza gordetzeko bermea ordainduko ez balu, bere plaza itxaron zerrendan geratu den hurrengo gazteari esleituko zaio. Kasu horretan:

Apirilak 21 – Apirilak 29	Itxaron zerrendatik sartu diren hautatuentzako: o Plaza BAIEZTATZEKO Behin-behineko hautatuek esleitutako plaza gordetzeko eskatuko zaien **BERMEAREN ORDAINKETA (250 eurokoa)** egin eta ORDAINAGIRIA bidali beharko dute **izenematea@euskarabentura.eus** helbidera. **Ordainketaren KONTZEPTUAN:** Abizena+Izena+2027 Adib: MartínezAmaiur_2027
Maiatzak 6	Hautatuak izan diren eta bermea ordaindu duten gazte guztiek, eskatuko zaien **DOKUMENTAZIOA entregatzeko AZKEN EGUNA dokumentazioa@euskarabentura.eus** drivetik partekatuko dizugun karpetan.

Euskarabentura
Jzioqui dugu!

BIDEO ETA FITXATEGI ASTUNAK NOLA BIDALI

1.urratsa: Sartu “www.WeTransfer.com” webgunera zure nabigatzailean. https://wetransfer.com/

2. urratsa: “Add files” ataleko borobil urdinari sakatu eta zure ordenagailuko artxiboetara bideratuko zaitu. Jarraian artxiboa aukeratu eta egin klik “Get a link” atalean. Horrela zuk behar duzun ESTEKA/LOTURA eskuratuko duzu!

